



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko maiatzaren 7a

64. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-24/PRO-00005. Foru-lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea. Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu du (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/ITP-00011. Interpelazioa, kriminalitatearen gorakada etengabeari aurre egite aldera Nafarroako Gobernuak darabiltzan politikei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (5. or.).

—11-24/ITP-00012. Interpelazioa, memoriaren eta bizikidetasunaren arloan Nafarroako Gobernuak darabiltzan politika publikoei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (6. or.).

—11-23/CDP-00010. Hezkuntzari buruzko Osoko Bilkura monografikoan onetsitako erabakiak (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-24/POR-00178. Galdera, Nafarroako Udalerriendako Irisgarritasun Planaren eredu komunari buruzkoa. María Olga Chueca Chueca andreak egin du (8. or.).

—11-24/POR-00179. Galdera, laneko arriskuen prebentzioko ordezkariaren figura indartzeko laguntzen deialdiari buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (9. or.).

—11-24/POR-00180. Galdera, 2030 Agendako garapen jasangarrirako helburuak deslegitimatzen dituzten diskurtsoei buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (10. or.).

—11-24/POR-00181. Galdera, mendekotasuna artatzeko sisteman Etxeko Arreta Zerbitzua egoteari buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (10. or.).

—11-24/POR-00182. Galdera, NAIR Center-en bidez zerbitzu publikoak hobetzeko eta kudeatzeko zeharkako proiektuak egiteari buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (11. or.).

—11-24/POR-00183. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko itxaron-zerrendei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (12. or.).

- 11-24/POR-00184. Galdera, Arartekoaren urteko txostenari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egin du (13. or.).
- 11-24/POR-00185. Galdera, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako ekintzen biktimei Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordeak emandako kalte-ordainei buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (13. or.).
- 11-24/POR-00186. Galdera, enplegu autonomoa sustatzeko dirulaguntzen deialdia aldatzeari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (14. or.).
- 11-24/POR-00187. Galdera, Miluzeko Zubia kaleko 1. zenbakian Salhaketa elkarteak kudeatzen duen Nafarroako Gobernuaren jabetzako pisuak sortzen dituen eragozpenei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (14. or.).
- 11-24/POR-00188. Galdera, Lizarrako Lanbide Heziketako ikastetxeetan ikasle-kopurua igotzeari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (15. or.).
- 11-24/POR-00189. Galdera, Nafarroan jaiotza-tasaren jaitziera geldiarazteko neurriei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (15. or.).
- 11-24/POR-00190. Galdera, NICDOk lehengo Nafarroako Azoka Eremuari eman nahi dion xedeari buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (16. or.).
- 11-24/POR-00191. Galdera, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea garatzeko eta aplikatzeko neurriei buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (16. or.).
- 11-24/POR-00192. Galdera, familiendako laguntzen deialdiari buruzkoa. María Olga Chueca Chueca andreak egin du (17. or.).
- 11-24/POR-00193. Galdera, Klima Aldaketari eta Trantsizio Ekologikoari buruzko Foru Legean jasotzen den herritarren batzarra eratzeko prozesuari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (18. or.).
- 11-24/POR-00194. Galdera, adierazpen eta/edo prentsa askatasunari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (18. or.).
- 11-24/POR-00195. Galdera, Nafarroako gardentasunari buruzkoa. Ramón Alzorric Goñi jaunak egin du (19. or.).
- 11-24/POR-00196. Galdera, sekretu ofizialei buruzko egungo legeari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (19. or.).
- 11-24/POR-00197. Galdera, jakiteko ea zertan oinarritzen diren Voxeko parlamentari nafarrei gorrotozko diskurtsoak egiten dituztela leporatzeko oinarriak. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (20. or.).
- 11-24/POR-00198. Galdera, eraberritze demokratikoa bultzatzeko neurriei buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (20. or.).
- 11-24/POR-00199. Galdera, Nafarroako demokraziari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (21. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- PER20240010. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko ikus-entzunezko komunikazioko teknikaria izateko lanpostu bat, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko (funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa). Izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda (22. or.).
- 11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko kide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (23. or.).
- 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (23. or.).
- 11-23/ELC-00012 eta 13 eta 11-24/ELC-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kontseilurako izendatu behar dituen kideak hautatzea. Hautagaitza erretiratzea (24. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-24/PRO-00005. Foru-lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Adolfo Araiz Flamarique jaunak Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzeko foru-lege proposamena aurkeztu du, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraren bidez izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 121., 122., 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, ERABAKITZEN DA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzeko foru-lege proposamena.

2. Foru-lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraren bidez izapidetzea.

3. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea zortzi eguneko dela bere iritzia emateko epea.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina amaituko baita eztabaida egin behar den Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

Foru-lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea

HITZAURREA

Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuak eta haren plantillak eskumen eta ezaugarri berezi eta berekiak dauzkate; eta, halatan, beharrezko dute zereginen eta lanpostuen berezitasun horretan oinarritzen diren kudeaketa-eredua eta araubidea.

Erregelamendu bereki bat prestatzearekin batera –langintza hori abian da jadanik–, aipatu zerbitzuko lanpostuei buruzko azterlan bat egin beharra dago, hain zuzen ere azken urteotan Administrazioak zenbait departamentu eta zerbitzutan egin duen bezalaxe, xedetzat harturik lanpostu horiek ahalik eta modu efizienteenean tanteratuta uztea lan-baldintzei, erantzukizunei eta eginkizunei dagokienez.

Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren eskumen eta ezaugarri bereziak egokiro baloratuko badira, eman beharreko pausoa da lanpostu-balorazioko azterlan bat egitea –erregelamenduaren negoziazioaren barrenean, eta erregelamenduarrekin batera–, lanpostu bakoitzaren analisisan sarturik lanpostuko prestazioak eta lan-baldintzak.

Horregatik, xedapen gehigarri berri bat txertatzea proposatzen da, zeinak ezarriko baitu lanpostu-balorazioko azterlan bat egin beharra, aldeei ahalbidetuko diena, bai foru-administrazioari bai ordezkaritza sindikalari, lanabes zehatz bat eskueran edukitzea, Mahai Sektorialean irekitako negoziazio-esparruaren barrenean.

Artikulu bakarra. Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legeari seigarren xedapen gehigarri berria txertatzen zaio, honela dioena:

“Seigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan lanpostu-balorazioko azterlana egitea.

Administrazioaren eta ordezkaritza sindikalarren artean ezarritako negoziazio-esparruaren barrenean, eta Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren funtzionamendua eta barne-antolamendua arautuko dituen erregelamenduaren onespenezaren aldi berean, Barne Zuzendaritza Nagusiak zerbitzu horretako lanpostuen balorazio-

rako azterlan bat egingen du. Azterlan horrek lanpostu desberdinetako prestazio eta lan-baldintzen analisi bat jasoko du, aintzat harturik Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren eskumen eta ezaugarri bereziak. Azterlanari 2024aren bigarren seihilekorian ekin beharko zaio.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra”.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/ITP-00011. Interpelazioa, kriminalitatearen gorakada etengabeari aurre egite aldera Nafarroako Gobernuak darabiltzan politikei buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako interpelazioa, kriminalitatearen gorakada etengabeari aurre egite aldera Nafarroako Gobernuak darabiltzan politikei buruzkoa.
2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.
3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, kriminalitatearen gorakada etengabeari aurre egite aldera Nafarroako Gobernuak darabiltzan politikei buruzko interpelazioa aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Kriminalitateari buruz Barne Ministerioak argitaratzen dituen datuek erakusten dute, lauhileko bat eta hurrengoa ere bai, kriminalitateak nabarmen gora egin duela Nafarroan. Horregatik jakin nahi dugu ea Nafarroako Gobernuak zer neurri hartzen ari den gaitz horri aurre egiteko.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-24/ITP-00012. Interpelazioa, memoriaren eta bizikidetasunaren arloan Nafarroako Gobernuak darabiltzan politika publikoei buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako interpelazioa, memoriaren eta bizikidetasunaren arloan Nafarroako Gobernuak darabiltzan politika publikoei buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Esaldi oso erabilia da bere historia gogoratzen ez duen herri bat etorkizunean iraganeko akats berberak egitera kondenatuta dagoela.

Nafarroan, 2015etik hona bultzada handia eman zaie memoriaren eta bizikidetasunaren arloko politika publikoei, zeinak hainbat mugarri, neurri eta jarduketatan gauzatu baitira azken bederatzire urteotan.

Hori dela-eta, memoriaren eta bizikidetasunaren arloan Nafarroako Gobernuak darabiltzan politika publikoei buruzko honako interpelazio hau egiten diogu Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariari.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-23/CDP-00010. Hezkuntzari buruzko Osoko Bilkura monografikoan onetsitako erabakiak

Nafarroako Parlamentuak, 2024ko apirilaren 26an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hauek onetsi zituen, hezkuntzari buruzko Osoko Bilkura monografikoan:

“**Lehena.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Lanbide Heziketaren eta Unibertsitatearen arteko elkarlanerako modu berriak bila ditzan, lanbide-profil konplexuagoetarako beharrianei erantzuna emateko eta I+G+b proiektuetarako.

2. Prospekziogilearen figura susta dezan, ikastetxeen eta enpresa-ehunduraren arteko elkarlan eta koordinazioa faboratzeko, halako moldez non lanbide-profilak doitu eginen baitira produkzio-sektoreek eskatzen dutenera; halaber, lehiakortasunaren hobekuntza eta etorkizuneko enplegarritasuna faboratzeko. Horrela, Nafarroako Gobernuak apustu argia egiten du Lanbide Heziketaren bitartean alde.

3. Lanbide Heziketa Dualeko erreferentzia-ikastetxeak sor ditzan merindade bakoitzean, tokian tokiko lan-eskaeretara egokitu direnak; hartara, despopulazioaren aurkako borroka gauzatu eta Nafarroako merindade guztien garapena faboratuko da.

4. Eragile sozioekonomikoen eta ikastetxeen artean komunikazio-molde arinak ezar ditzan, al bait lasterren LHko Plan Gidari bat abiarazte aldera.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroaren errealtate instituzionala arlo guztietan islatuko duten testuliburuak ezartzera.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuak indar politikoak premiatzen ditu behar diren oinarriak jar daitezzen, Nafarroako hezkuntza-sisteman zeresana duten eragile guztiek egonkortasunerako elkarrikeria bat abiaraz dezaten, ekitatea, berdintasuna, inklusioa eta bikaintasuna zutuin izanen dituen, eta xede harturik irakaskuntza guztietan ikaskuntza, hezkuntza-prestakuntza eta gaitasun-lorpena hobetzea.

Laugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du indartu dezan 0-3 Hezkuntza Zikloaren hezkuntzatasuna eta pedagogikotasuna, bere ahaleginak eskaintza publiko integralaren unibertsalizazioa bermatzera bideraturik.

Bosgarrena. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio urrats

esanguratsua eman ditzala hezkuntza arloko langileen lan-baldintzak hobetzeko, eta horretarako beharrezkoak diren negoziazioak egin ditzala, hartutako neurriek datorren ikasturtean eta 2025eko aurrekontuetan isla izan dezaten.

Besteak beste, honako hauek egitera premiatzen du:

– Langileen egonkortasuna sustatzeko neurriak hartzea: lanpostuak finkatu, enplegu publikoaren eskaintza handitu, lekualdatze-lehiaketak egokitu, destinorik gabeko irakasle finkoen arazo-ei konponbidea eman, bitartekotasuna murriztu...

– Gehiegizko ratioak murriztea eta errefortzu-orduak indartzea.

– Hezkuntza-langileek galdutako erosahalmena berreskuratzea.

– Gehiegizko lan burokratikoak arintzea.

– Langileen prestakuntza egokitzea.

– Zuzendari izateko bokazioak sustatzeko neurriak hartzea.

– Karrera profesionalaren gaiari heltzea.

– Hezkuntza itunetik bete ez diren alderdiak betetzea.

– Hezkuntza Itunean zehaztutako neurriak betetzea.

Seigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du:

1. Bermeekin eta behar bezalako baldintzetan onar dezan Tuterako Hizkuntz Eskola Ofizialean frantsesa, alemana eta euskara ikasteko eskaera, beharrezko baliabideak (giza baliabideak nahiz materialak) ziurtaturik, maila-aniztun taldeak ekidinen dituztenak eta ikasleei ahalbidetuko dietenak curriculumean ezarrita dagoenaren arabera aurrepausoak ematea.

2. Dibulgazio-kanpainak egin ditzan, beste hizkuntza batzuk jakitearen balioa nabarmentzeaz gain Hizkuntza Eskola Ofizialen eskaintza publikoaren bitartez hizkuntzak ikasteko adoretze-lana egiten dutenak.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2024ko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00178. Galdera, Nafarroako Udalerriendako Irisgarritasun Planaren eredu komunari buruzkoa

MARÍA OLGA CHUECA CHUECA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Olga Chueca Chueca andreak egindako galdera, Nafarroako Udalerriendako Irisgarritasun Planaren eredu komunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Olga Chueca Chueca andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela gutxi, Lurralde Kohesiorako Departamentuak toki-entitateei zuzendutako informazio-jardunaldi bat antolatu du, Nafarroako Udalerriendako Irisgarritasun Planaren eredu komunaren proiektua aurkezteko.

Zertan datza proiektu hori?

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Olga Chueca Chueca

11-24/POR-00179. Galdera, laneko arriskuen prebentzioko ordezkariaren figura indartzeko laguntzen deialdiari buruzkoa

ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galdera, laneko arriskuen prebentzioko ordezkariaren figura indartzeko laguntzen deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Arantxa Izurdiaga Osinagak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan apirilaren 26an, Ekonomia Sozialeko eta Laneko zuzendari nagusi Iñaki Mendiorozek eta Osasuneko zuzendari nagusi Antonio Lópezek neurri-sorta bat aurkeztu zuten prentsaurreko batean, laneko arriskuen prebentzioa indartzeko, lan-ingurune "seguru eta osasungarriak" bultzatzeko eta istripu-tasa murrizteko. Proposatutako neurrien artean dago prebentzioko ordezkariaren figura indartzea; hartara, aldaketak eginen dira laguntzen hurrengo deialdian.

Nafarroako Gobernuak zer aldaketa egin nahi du laneko arriskuen prebentzioko ordezkariaren figura indartzeko laguntzen hurrengo deialdian? zein da helburua?

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

11-24/POR-00180. Galdera, 2030 Agendako garapen jasangarrirako helburuak deslegitimatzen dituzten diskurtsoei buruzkoa

AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak egindako galdera, 2030 Agendako garapen jasangarrirako helburuak deslegitimatzen dituzten diskurtsoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egi-ten dio Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

María Chivite lehendakariak orain dela gutxi erreibindikatu du Agenda 2030aren garapen jasangarrirako helburuak "sozializatu" beharra dagoela, helburu horiek deslegitimizatzen dituzten diskurtsoen aitzinean.

Nafarroako Gobernuak zer egingen du Agenda 2030aren garapen jasangarrirako helburuak deslegitimizatzen dituzten diskurtsoei aurre egiteko?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

11-24/POR-00181. Galdera, mendekotasuna artatzeko sisteman Etxeko Arreta Zerbitzua egoteari buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porras jaunak egindako galdera, mendekotasuna artatzeko sisteman Etxeko Arreta Zerbitzua egoteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Javier Arza Porras-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkez-

ten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilari Carmen Maeztu Villafranca andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Mendekotasunaren Estatuko Behatokiak argitaratutako azken txostenaren arabera, Nafarroako mendekotasun-sistemak zenbait ahulgune ditu. Horietako bat da, hain zuzen ere, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak presentzia txikia duela sistemak aplikatutako baliabide gisa: aplikatutako baliabideen % 4,8koa da, estatuan batezbestekoa % 18a den bitartean.

Departamentuaren balorazioaren arabera, zeri zor dakioko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak hain presentzia txikia izatea? Departamentua zer plan ari da abian jartzen edo jarriko du abian Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak presentzia handiagoa izan dezan mendekotasuna artatzeko sisteman?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porras

11-24/POR-00182. Galdera, NAIR Center-en bidez zerbitzu publikoak hobetzeko eta kudeatzeko zeharkako proiektuak egiteari buruzkoa

DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak egindako galdera, NAIR Center-en bidez zerbitzu publikoak hobetzeko eta kudeatzeko zeharkako proiektuak egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Daniel López Córdoba, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak 2024ko maiatzaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Adimen artifiziala eztabaida eragiten ari da, hala politikan nola gizartean. Horrek sortzen dituen arazo

etikoei erreparatzen diegu batik bat, baina duen ahalmena ere baloratzen dugu. Erakunde publikoa garen aldetik, azken horri erreparatu behar diogu batez ere, are gehiago gure erkidegoan, non adimen artifizialean espezializatutako ikerketa-zentro bat baitauekagu, adimen artifizialaren ikerketa aplikatura bideratuta dagoena: NAIR Center.

Halatan, teknologia berrien potentzialtasuna esploratu beharra daukagu, bai eta gobernuak herritarrei eskaintzen ahal dizkien zerbitzuetan duten inpaktua ere, bai zerbitzu publikoak hobetzeko eta horien garapen teknologikorako edo enpresei laguntzeko, bai dauden arazoei konponbide bat bilatzeko eta neurriak ezartzeko, eta horretarako ezinbestekoa da zentro horrek Nafarroako Gobernuko departamentu guztiekin eskutik lan egin dezan.

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak ba al du asmorik Nafarroako Gobernuko gainontzeko departamentuekin zeharkako proiektuak egiteko NAIR Center-en bidez, zerbitzu publikoak hobetzeko eta horiek kudeatzeko?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

11-24/POR-00183. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko itxaron-zerrendei buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko itxaron-zerrendei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako osasungintza publikoko itxaron-zerrendez informatzeko agerraldian Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak adierazi

zuen bost espezialitatetan metatzen zela lehen kontsultarako itxaron-zerrendan dauden pazienteen % 50 baino gehiago. Honako hauek dira: traumatologia (9.924), dermatologia (8.271), oftalmologia (7.046), errehabilitazioa (6.662) eta bizkarrezurra (7.318). Beste espezialitate batzuetan ere handia da itxaron-zerrenda; esate baterako, kirurgia baskularrean (3.146), non batez beste itxaron beharreko denborarik handiena gertatzen baita (382 egun).

Orobat adierazi zuen neurriak hartuko direla itxaron-zerrenda horiek eta atzerapenak murrizteko; bere itxaropena zen horiek murriztea eta, halatan, bermeei buruzko legeak ezarritako epearen barruan bermatu ahal izatea osasun-laguntza.

Halere, 2024ko lehen hilabete hauetan gero eta gehiago dira arreta espezializatuko lehen kontsultetako zerrendetan pilatzen diren hitzorduak.

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Osasun Departamentuak zer arazo edo zailtasun dauka Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko itxaron-zerrenda murrizteko? zer egin du hori konpontzeko?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

11-24/POR-00184. Galdera, Arartekoaren urteko txostenari buruzkoa*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, Arartekoaren urteko txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Arartekoaren urteko txostenaren arabera, igo egin dira Nafarroako Gobernuak eman beharreko oinarritzko zerbitzu nagusiak direla-eta herritarrek aurkeztutako keak. Gobernuko lehendakariak zer balorazio egiten du horri buruz?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

11-24/POR-00185. Galdera, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako ekintzen biktimei Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordeak emandako kalte-ordainei buruzkoa*EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako ekintzen biktimei Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordeak emandako kalte-ordainei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

GALDERAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluetan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak maiatzaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordea zer epaitan oinarritu da eskatzaileei kalte-ordainak emateko?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-24/POR-00186. Galdera, enplegu autonomoa sustatzeko dirulaguntzen deialdia aldatzeari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, enplegu autonomoa sustatzeko dirulaguntzen deialdia aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak maiatzaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Enplegu autonomoa sustatzeko dirulaguntzen deialdiaren aldaketak langile autonomo askori ekarriko dizkion ondorio negatiboak baloratu al ditu departamentuak?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/POR-00187. Galdera, Miluzeko Zubia kaleko 1. zenbakian Salhaketa elkarteak kudeatzen duen Nafarroako Gobernuaren jabetzako pisuak sortzen dituen eragozpenei buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Miluzeko Zubia kaleko 1. zenbakian Salhaketa elkarteak kudeatzen duen Nafarroako Gobernuaren jabetzako pisuak sortzen dituen eragozpenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuako Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariari, Batzordean erantzun dezan:

Zer neurri hartuko duzu Miluzeko Zubia kaleko 1. zenbakian Salhaketa elkarteak kudeatzen duen Nafarroako Gobernuaren jabetzako pisua urteetan zehar sortzen ari den eragozpenak buka daitezzen?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-24/POR-00188. Galdera, Lizarrako Lanbide Heziketako ikastetxeetan ikasle-kopurua igotzeari buruzkoa

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, Lizarrako Lanbide Heziketako ikastetxeetan ikasle-kopurua igotzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lanbide Heziketako Nafarroako ikastetxeetan nabarmen igo da ikasle-kopurua, eta horrek arazoak sortzen ditu espazioari dagokionez zenbait ikastetxetan, esaterako Lizarrako BHI Politeknikoan.

Zergatik ez da kontuan hartzen Estellerriko enpresaburu-elkarteen iritzia arazo hori konpontzeko?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

11-24/POR-00189. Galdera, Nafarroan jaiotza-tasaren jaitsiera geldiarazteko neurriei buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Nafarroan jaiotza-tasaren jaitsiera geldiarazteko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak neurririk hartuko al du Nafarroan jaiotza-tasaren jaitsiera geldiarazteko?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-24/POR-00190. Galdera, NICDOk lehengo Nafarroako Azoka Eremuari eman nahi dion xedeari buruzkoa

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, NICDOk lehengo Nafarroako Azoka Eremuari eman nahi dion xedeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

NICDOk zertarako erabili nahi du lehengo Nafarroako Azoka Eremua?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

11-24/POR-00191. Galdera, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea garatzeko eta aplikatzeko neurriei buruzkoa

MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea garatzeko eta aplikatzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Ceriok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismo-kontseilari Rebeca Esnaola Bermejok Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak zer neurri hartu nahi du Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea garatzeko eta aplikatzeko?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-24/POR-00192. Galdera, familiendako laguntzen deialdiari buruzkoa*MARÍA OLGA CHUECA CHUECA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Olga Chueca Chueca andreak egindako galdera, familiendako laguntzen deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Olga Chueca Chueca andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak 2024ko

maiatzaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak foru-erkidegoko familiendako laguntzen hiru deialdiren oinarriak onetsi ditu:

1. Adingabeak nahiz adindunak zaindu ahal izateko eszedentzia eskatu behar izan duten langileentzako laguntza.

2. Familia ugariendako eta guraso bakarreko familiendako laguntzak, aparteko gastuak eta egin beharreko gastuak ordaintzeko.

3. Guraso bakarreko familia gisa kreditatutako edo gurasobakartasun-egoeran dauden familiendako laguntzak, lan-bizitza eta familia bateragarri egitea errazteko.

Zure departamentuak zer balorazio egiten du laguntza horiei buruz?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Olga Chueca Chueca

11-24/POR-00193. Galdera, Klima Aldaketari eta Trantsizio Ekologikoari buruzko Foru Legean jasotzen den herritarren batzarra eratzeko prozesuari buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako galdera, Klima Aldaketari eta Trantsizio Ekologikoari buruzko Foru Legean jasotzen den herritarren batzarra eratzeko prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Pablo Azcona Molinetek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak maiatzaren 9ko Osoko Bilkuran (osteguna) ahoz erantzun dezan:

Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legeak, besteak beste, gobernantza berri bat planteatzen du, gizarte eragileen parte-hartze aktiboarekin. Zertan da herritarren batzarraren eraketa?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-24/POR-00194. Galdera, adierazpen eta/edo prentsa askatasunari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, adierazpen eta/edo prentsa askatasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularreko talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, heldu den maiatzaren 9ko Osoko Bilkurarako:

Lehendakariaren ustez, Nafarroako Gobernuak nahiz beste edozein erakundek adierazpen edo/eta prentsa askatasuna eragotzi behar al du?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-24/POR-00195. Galdera, Nafarroako gardentasunari buruzkoa

RAMÓN ALZORRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzorriz Goñi jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako gardentasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2024ko maiatzaren 6ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zure gobernuak gardentasunarekiko zer konpromiso dauka Nafarroan?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

11-24/POR-00196. Galdera, sekretu ofizialei buruzko egungo legeari buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, sekretu ofizialei buruzko egungo legeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Pablo Azcona Molinetek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, bigarren lehendakariorde eta Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak maiatzaren 9ko Osoko Bilkuran (osteguna) erantzun dezan:

Kazetariei aurreko igandean egindako adierazpenetan esan zenuen Estatuko Gobernuak egin lezakeen gauzetako bat izan beharko litzatekeela sekretu ofizialen legea indargabetzea.

Sekretu ofizialen egungo legeak zer ondorio zuzen dauka Nafarroaren errealitatean?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-24/POR-00197. Galdera, jakiteko ea zertan oinarritzen diren Voxeko parlamentari nafarrei gorrotozko diskurtsoak egiten dituztela leporatzeko oinarriak

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko ea zertan oinarritzen diren Voxeko parlamentari nafarrei gorrotozko diskurtsoak egiten dituztela leporatzeko oinarriak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan oinarritzen zara Voxeko parlamentari nafarrei gorrotozko diskurtsoak egiten ditugula leporatzeko, halako moduan non esamesa eta gezurra sustatzen baitituzu?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-24/POR-00198. Galdera, eraberritze demokratikoa bultzatzeko neurriei buruzkoa

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, eraberritze demokratikoa bultzatzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garridok, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernua zer neurri ari da prestatzen gure erkidegoan eraberritze demokratikoa bultzatzeko?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: José Miguel Garrido Sola

11-24/POR-00199. Galdera, Nafarroako demokraziari buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako demokraziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuko lehendakariak zergatik dio Nafarroan demokrazia arriskuan dagoela?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

PER20240010. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko ikus-entzunezko komunikazioko teknikaria izateko lanpostu bat, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin, oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa (funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa)

Izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda

53/2024 Ebazpena, maiatzaren 3koa, Nafarroako Parlamentuko lehendakariarena, zeinaren bidez onesten baita aipatu prozeduran onartuak nahiz baztertuak izan diren izangaien behin-behineko zerrenda.

2024ko martxoaren 18ko 58. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako deialdiak –alegia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko ikus-

entzunezko komunikazioko teknikaria izateko lanpostu bat, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa, oposizio-lehiaketa bidez betetzekoak–5. oinarrian ezarritakoarekin bat, honako hau EBATZI DUT:

1. Izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda hau onestea:

A.1) IZANGAI ONARTUAK:

Izen-abizenak
Amigot Leache, Nerea
Echeverría Sáez, Ainhoa
Epalza Atxa, Maialen
Escala Iparraguirre, Ane
Fernández de Marticorena Rodríguez, Iñigo
Osácar Aizpún, Raquel
Velasco Zozaya, Imanol

A.2) IZANGAI BAZTERTUAK:

Ez dago inor bazterturik.

2. Interesdunek zilegi izanen dute ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrerako HAMAR EGUN BALIODUNeko epean aurkeztea egoki jotzen dituzten erreklamazioak behin-behineko zerrendaren aurka, eta, kasua bada, eginak dituzten balizko akatsak zuzentzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko

epea **2024ko maiatzaren 23ko 17:30era arte luzatzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioetako eta foru parlamentarien elkarteko eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko kide bat hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko kide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko

epea **2024ko maiatzaren 23ko 17:30era arte luzatzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioetako eta foru parlamentarien elkarteko eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

11-23/ELC-00012 eta 13 eta 11-24/ELC-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kontseilurako izendatu behar dituen kideak hautatzea

HAUTAGAITZA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2024ko apirilaren 25ean, Nafarroako Kontseiluko kide hautatua izateko hautagai Alberto Andérez jaunak mezu elektronikoko bat igorri zuen, non adierazten baitzuen jakin zuela akordio bat eskuratua zutela talde parlamentario jakin batzuek eta bertan aurreikusten zela Nafarroako Kontseiluko hiru kideren agintaldia amaitzeagatik haien postuetarako hautagaiak hautatzeko deituta zegoen prozeduraren azkeneko emaitza; horiek horrela, uste zuen aipatu akordioak xedea kentzen ziola bera Foru Araubideko Batzordera, 2024ko maiatzaren 3ko 12:15erako deitua zegoen horretara, agertzeari.

Aipatu idazkiak, eta ondoren agertu ez izanak, berez dakarte aurkeztutako hautagaitzari uko egitea, nahitaezkoa delako Foru Araubideko Batzordera agertzea hautagai gisa dituen merezi-

menduak azaltzeko, Nafarroako Kontseiluari buruzko ekainaren 9ko 8/2016 Foru Legearen 3.5 artikuluari jarraikiz, prozedurak gainerako hautagaitzekin jarraituz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Jasotzat ematea Nafarroako Kontseiluko kide hautatua izateko Iruñeko Abokatuen Elkargo Txit Prestuak aurkezturiko hautagai Alberto Andérez González jaunak igorritako komunikazioa, zeinak dakarren hautagaitzari uko egiten diola.

2. Erabaki hau talde parlamentarioetako eta foru parlamentarien elkarteko eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate